

BATZORDE **EXEKUTIBOA**

Administrazio Kontseiluaren Araudiaren 23. artikulua arautzen du Batzorde Exekutiboa:

"23. artikulua: Batzorde Exekutiboa.

23.1. Administrazio Kontseiluak Batzorde Exekutiboa izendatzea erabaki dezake, eta Batzorde horren esku utz ditzake Kontseiluaren funtzio batzuk edo guztiak, Legearen edo Estatutuen arabera eskuordetu ezin dituenak izan ezik. Kontseiluko kideen bi herenek, gutxienez, bozkatu beharko dute Batzorde Exekutiboko kideen izendapenaren alde eta zenbait funtzio eskuordetzearen alde.

23.2. Gaitasunak eskuordetzeko akordioan Administrazio Kontseiluak zehazten duena alde batera utzita, Batzorde Exekutiboak ondoko eskumenak izango ditu:

- a) Dagozkion erabakiak hartuko ditu Administrazio Kontseiluak eskuordetu dizkion gaitasunei buruz.
- b) Sozietatearen kudeaketa eta zuzendaritza arrunta jarraitu eta gainbegiratuko ditu; gainera, partaidetutakoekiko koordinazioa egokia dela zainduko du, betiere horien eta Sozietatearen interesak aintzat hartuta.
- c) Enpresa-estrategiak zer jarraibideren arabera definitu behar diren aztertu eta Administrazio Kontseiluari proposatuko dio, eta hori praktikan jartzen dela gainbegiratuko du.
- d) Kontseiluak eskuordetu ala ez, ondoko arloen inguruko gaiei buruz hausnartzea eta Administrazio Kontseiluari jakinaraztea:
 - Sozietatearen urteko banakako aurrekontua eta aurrekontu finkatua, eta negozio-lerro bakoitzerako aurreikuspenak xehatu beharko dira.
 - Ekonomia kudeaketari, aurrekontu-desbideratzei eta, kasua balitz, horiek zuzentzeko neurrien proposamenari buruzko hileko jarraipena.
 - Inbertsio material edo finantzario garrantzitsuak eta horien justifikazio ekonomikoa.
 - Beste sozietate batzuekin egiten diren aliantzak edo hartzen diren erabakiak, zenbatekoa edo izaera dela-eta Sozietatearentzat garrantzitsuak badira.
 - Sozietatearentzat garrantzi ekonomikoa duten finantza-eragiketak.
 - Epe ertainean jarduteko programa.
 - Enpresako unitate operatiboek helburuak lortu dituzten edo ez baloratzea.
 - Partaidetutakoak direla eta, d) atalean aipatutako gaien inguruko jarraipena eta balorazioa.

e) Sozietateak berezko akzioak eskuratu edo besterendu behar dituen erabakitzea, horren inguruan Batzar Nagusiak eman duen baimenarekin bat etorriz; gainera, aholkulari bat izenda dezake berezko akzioak saldu edo erosteko erabakia hartu eta izapidetzeko, eta legearen arabera egokia denenean, gainbegiratu eta baimenduko ditu partaidetutakoek berezko edo Sozietatearen akzioak eskuratu edo besterentzeko hartzen dituzten akordioak.

23.3. Batzorde Exekutiboak eskuordetuta dituen gaitasunen inguruan erabakitzeko autonomia badu ere, eta hartzen dituen erabakiak guztiz baliozkoak badira eta Administrazio Kontseiluaren berrespena behar ez badute ere, Batzorde Exekutiboaren erabakiak Kontseiluak berretsi beharko ditu presidentek edo Batzordeko hiru kidek hori egitea egokia dela uste badute. Horixe bera aplikatuko da ondoko gaietan: Kontseiluak Batzordeari azterketa egitea agintzen badio baina horren inguruan azken erabakia Kontseiluak berak hartuko duela esaten badio. Kasu horretan, Batzorde Exekutiboak Administrazio Kontseiluari dagokion proposamena bidali baino ez du egingo.

23.4. Batzorde Exekutiboa gutxienez hiru batzordekidek eta gehienez zapi batzordekidek osatuko dute, Administrazio Kontseiluko presidentea eta presidenteordea barne, Batzordeko kide ere izango baitira.

23.5. Administrazio Kontseiluko presidentea izango da Batzorde Exekutiboko presidente.

23.6. Batzorde Exekutiboa hilean behin bilduko da, oro har, eta bileretara zuzendaritza-taldeko kideak, langileak eta Sozietateko aholkulariak ere joan ahalko dira Batzordeak egokia iritziz gero.

Batzorde Exekutiboak ondoko osaketa du egun:

- Antonio Hernández Callejas jauna - Presidentea
- Demetrio Carceller Arce jauna
- José Antonio Segurado García jauna.
- Luis Peña Pazos jauna – Kide ez den idazkaria
